




MUSIKAREN GILTZAK

Fitxa egilea: Itsaso Arrieta
Laguntzailea: Pantxix Bidart
Marrazkiak: Asisko Urmeneta
Proiektuaren arduraduna: Marie Hirigoyen Bidart

GILTzaera elkartea

ITSASOKO DEIAK

Ba al zenekien sasoi batean zeruertzari adi egotea ezinbestekoa zela?



Itsasoak garrantzi handia izan du gure bizitzetan, Euskal Herriko kostak 250 kilometro inguruko luzera dauka eta, itsas hegi horretan, talaiaak izan dira beti. Inguruetako puntu nabarmenak izaten ziren: goragune edo harkaitz muturrak, adibidez. Gehienetan, leku horietan dorre itxurako eraikinak altxatzen ziren, itsasoak zekarrena behatzeko eta informazioa jasotzeko. Balea noiz agertuko zain egon, arrain-sarden distira begiratu, arrisku naturalak aurreikusi, itsasoko zirkulazioa kontrolatu, merkataritzaren joan-etorriak so egin... baina baita ere pirata eta kortsarioak zaintzen ziren; talaiaiek behatuta egiten ziren horiek guztiak.

Eta nork egiten zuen lan hori? Seineruak. Seineruak eta talaieroak, noski!

Seineruaren betebeharra zen talaiaira joatea, itsasoa nola zegoen begiratzea —eguraldi zakarra ekarriko bazuen edo itsasorako aro ona ote zen— eta erabakia hartzea; itsasora aterako ziren ala ez. Berak deliberatzen zuen arrantza eguna edo *etxegun* (lehorrean gelditzeko eguna Bermeon) izango ote zen. Behin erabakia hartuta, Kofradian zain zeuden dei egiteko emakumeak (*dei eittekuak* Lekeition) arduratzen ziren txalupa bakoitzeko marinel edo tostartekoak deitzeaz; hau da, seineruak hartutako erabakia jakinarazten zien baporetako marinelei. Normalean familiatik etorritako beharra izaten zen. Dei egiteko gehienek amaren edo amonaren oinordetzan hartzen zuten kargua.

Itsasaro ona zekarrenean honela egiten zuten dei: - Jose! gora Jaungoikoaren izenean! - Pedro! gora Jaungoikoaren izenean! Itsasoratzerik ez zenean, ordea, seineruak berak burdinazko punta zuen makila bat hartu, eta narras edo herrestan erabiliaz zarata ateratzen zuen herriko kaleetan zehar. Ekintza horri *txarrantxea pasau* esaten zitzaion. Zarata edo hots hori entzutean bazekiten egun horretan ez zegoela ohetik jaiki beharrik; *etxegun*, beraz.

Dei egiteko emakumeen edo *dei eittekuen* lana hori baino gehiago ere bazen; ez ziren itsasora ateratzen baina lehorreko lan asko egiten zuten. Ontzia itsasoratu baino lehen, bertan beharrezko guztia zegoela ziurtatzen zuten; bueltan, lehorreratzean, portuko lanetan ibiltzen ziren (otzarak, sareak, arrain-kaxak...). Dei egiteko emakumeek, itsasontziko beste edozein langilek bezala, euren partila (irabazien banaketa) edo *partija* eskuratzen zuten.

Lekeition, dei egitekoak pasa den mendeko 60. hamarkadara arte ikusi ahal izan genituen lanean, gutxi gorabehera telefonoaren erabilera orokortu zen arte. 1990ean, *dei eittekuak* izandako emakumeak jarduera antzezten hasi ziren San Pedro egunean.

Emakumeen lana funtsezkoa izan da portuetan eta arrantzan. Portuetan batelari, zirgari eta kargaketari (zamaketari) lanak egiteaz gain, komunitate itsastarretan emakumeek hainbat lan egiten zuten: itsaskilari, saregile, arrantzako arteen mantenua, arrainaren deskarga, enkantea eta salmenta, kontserba fabriketako eskulana eta abar. Oso neskatotatik moilatan ibiltzen ohituak, atsedetik gabe lan egitera eginak, beren eginkizuna gizonena baino lansari baxuagoarekin betetzen zuten. Emakumeak lanotan aspalditik aritu baziren ere, haien eginkizuna ez da beti izan lan bezala ordaindua, ezta aitortua ere orain gutxira arte. Gainera, egiten zituzten lan horiei gehitzen zitzairen etxea, familiaren zaintza eta etxeko ekonomiaren administrazioa.

Zerk beldurtzen zituen arrantzaleak?

Traganarruak? Edo Traganarru jeinuak? Itsasoko euskal izaki mitologikoa da Traganarru. Itsasoan gertatzen diren hondamendien irelua, arrantzaleak eta itsasontziak irensten dituen etsaia.

KANTUAK

Astodunak

Durangoko Plateruak, Antonio eta Juan Kruz de la Fuente.

Musika: Herrikoia/Natxo de Felipe. *Vizcayatik...Bizkaiara* (2001)

<https://www.youtube.com/watch?v=zZRRnt2BBSE&t=3s>

Arre, potxo, arre!

Arre, asto, arre!

Arre, maletxoria!

Arre, bada, arre!

Isso, isso, isso!

Hortik zek harua?

Beti baina okerretik

asto berenua!

Hamarrak jo artian,

izotz handi baten,

oinak bilosik nago

arrainak garbitzen.

Zesto artian gero

ondo plegatzia

astuan kargetako

daukat nik penia.

Jagi zaite jentia

ia ordua dozu

zortzi legua eginda

atetan naukazu.

Hor dozu lebatz fresko

bart urtenikua

hemen nago hotzak hilik

bai ikustekua!

Ni naz emakume bat

arrain saltzailia

marinelak itxasotik

dakarren guztia.

Nahi besigu, nahi lebatz,

atun, sardinia,

nahi txirla, nahi mielgia,

baita angilia.

Gabaz ta egunaz nabil

neure astuagaz

kargia jausirikan

guztia galduaz.

Hargatik izaten ditut

fortunarik asko

portuan errial bat

aforan sei lauuko.

Oies errondan dabil

Herrikoia

https://www.youtube.com/watch?v=P_61FWzrWpw

Oies errondan dabil,

berak badaki nondik,

Karmen gerri politen

ate ondtxutik. Oies:

sarritxutan errondan

ibili zaitezke.

itsasoko aldetik

dauka bentanea,

handixek erasten dau

karmenek sokea. Oies:

dirua emon nahi eta

inork hartu nahi ez.

ATSOTITZAK

Dei onari, erantzun ona



Sareak hurrago, arrainak estuago


Gauzak egiteko epea hurbilago, jendea larriago

Arrainak mus (murgildu) txahalak mu

Nork bere izatearen arabera jardun du

IPUINA

Hiru olatuak



Bazen aspaldi batean, besteen ondasunak eskuratzea oso gogoko zuen sorgin bat Bermeo aldean. Matxin arrantzalea antxoa otzara eder batekin itsasotik bueltan zetorrela sorginarekin egin zuen topo portuan.

Sorginak arrantza ona izan ote zuen galdetu zion Matxini eta hark, baietz erantzun; arrantza egun bikaina izan zuela. Baina urduritzen hasita zegoen ordurako, ondo baino hobeto zekien Matxinek sorginekin berbetan (hizketan/eleketan) aritzea ez zela komeni; gainera, ez zuen gura (nahi) inork sorgin batekin hizketan ikus zezan.

Alde egitera zihoanean, sorginaren lausengu berbak eskari bihurtu ziren eta otzarakada antxoa emateko eskatu zion. Arrantzaleak, bere onetik aterata, ezezkoa erantzun, eta mespretxuz bertatik ospa egiteko agindu zion: “Aire hemendik, atso zahar hori!”. Andrea bultzada batez baztertu, eta bideari ekin zion berriz arrantzale gazteak. Haserrealdia disimulatu ezinik, ukabila jasoz arrantzalea madarikatu eta mehatxatu egin zuen sorginak.

Haserrea mendeku bila dabilela esan ohi da, eta, halaxe, mendekuak itsuturik, sorgin lagunen bila joan zen laguntza eske. Gertatutakoaren berri eman zien bi sorginei, eta mendeku-plana atontzen hasi ziren hirurak.

—Bihar itsasoratzen denean, zain edukiko gaitu! Hiru olatu erraldoi bihurtuko gara eta mendeku hartuko dut!

—Lehenengo olatuak kezkatu egingo du, bigarrenak ikaratu eta hirugarrenak... hirugarrenak hondoratu egingo du!

Mendekua zehaztu, eta hondartzarako bidea hartu zuten hiru sorginek, Matxin akabatzeke prest.

Matxinek ez zuen salbaziorik izango, Takiok, Matxinen auzoak, sorginen arteko elkarriketa entzun izan ez balu. Bizkor-bizkor joan zen lagunarengana Takio. Entzundakoa kontatu, eta Matxin beldurtu bazen ere, ez zuen atzera egin; erasorako prestatzea erabaki zuen.

Hurrengo egunean, sareak prestatu eta itsasorako bidea hartu zuten lagun biek, Takio ere harekin itsasoratu baitzen, Takiok berak horrela eskatuta.

Txalupan ziren bi marinela lehen olatua bertaratzen ikusi zutenean. Gainera etorri zitzaientzuten olatua, eta ontzia gora altxatu zuen. Lehena pasatu, eta berehala heldu zen bigarrena. Indartsuagoa zen, aurrekoa baino askoz handiagoa. Ezker-eskuin astindu zuen txalupatxoa olatuak, eta bi bidaiariak beldurtu. Hala ere, hura ere pasatu zen, eta onik ziren Matxin eta Takio. Bigarrena pasatu berri, hirugarrena parez pare zuten. Erraldoia zen, beltza eta izugarria. Okerrenerako prestatu ziren.

Matxin, baina, olatuari aurre egiteko prest zen. Alboan zuen arpoiari estu heldu, eta olatuaren bihotzera jaurti zuen indarrez. Ura txalupa irenstea zen, baina bete-betean jo zuen Matxinek, eta olatua odol putzu erraldoia bihurtu eta desagertu egin zen. Matxinek eta Takiok, pozaren pozez, elkar besarkatu egin zuten.

Hurrengo egunean, herritar guztiak galdezka ziren zer gertatu ote zitzaion sorgin famako emakume Bermeotarrari, ezer esan gabe desagertu baitzen. Haren lagunak beltzez jantzita, negar eta negar egiten ikusi arren, ez zen inor ausartu ezer galdetzera.

Bermeoko arrantzaleek beti gogoratzen dute historia hau, eta beti batera azaldu ohi diren olatuei "hiru Mariak" deitzen diete.

PERTSONAIA: Ezin bukatu lekeitiar gailena aipatu gabe



Resurrección María Azkue Aberasturi (1864-1951)

Lekeition jaio eta bizi izan zen gaztaroan. Txikitatik jaso zuen Azkuek amarengandik zetorkion herri jakintzarekiko ezaguera eta jakin-mina. Aitarengandik, berriz, literaturarekiko zaletasuna hartu zuen.

Gasteizko seminarioan eta Salamancan burutu zituen teologia eta filosofia ikasketak. 1893an, teologian doktore izendatu zuten. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko institutuan ateratako Euskara Katedra eskuratu zuen 1888an, besteak beste, Sabino Arana Goiri eta Miguel Unamuno gainditu ostean. Ordutik, Bilbon finkatu zen eta bizitza osoa eman zuen euskararen eta euskal kulturaren aldeko lanean.

Euskaltzaindiaren sorrera bultzatu zuen eta bera izan zen euskal akademiaren lehen lehendakaria, 1919an sortu zenetik hil zen arte. Ardura berrian buru-belarri sartuta, euskara katedratik erretiratu egin zen. Izan ere, 1927an Espainiako Errege Akademiako kide ere izendatu zuten, euskararen ordezkari moduan.

Gerra zibila zela-eta, Akademiaren jarduna etenda geratu zen 1941era arte. Orduan, Euskaltzaindia berrabiatzeko baimena lortu zuen Azkuek, baina Francoren diktadurapean ez zuen aurreko urteetan izandako bizitasuna berreskuratu. 1951ean, 87 urte zituela, istripuz Ibaizabal ibaira erori eta egun batzuetara hil egin zen.

Lau zutabe nagusi izan zituen bere lanak:

Diccionario vasco-español-francés (1905-1906) Hiztegi mardul eta aberatsa da.

Cancionero popular vasco (1922-1925) Musika izan zen bere pasio handienetako bat.

Morfología Vasca (1925) Euskal hizkien eta euskararen kategoria gramatikalen tratatua da.

Euskalerriaren yakintza (1935-1947) Folklorea, tradizioak, ipuinak, atsotitzak, esamoldeak edota ohituren bilduma da.

Horrez gain, askotariko lanak utzi zizkigun Azkuek: hizkuntza biziberritzeko euskara hutseko aldizkariak, gramatika lanak, irakurgaiak, ortografia proiektuak, euskara ikasteko metodoak, zenbait opera, eleberrak...

Zalantzarik gabe, Euskal Herriak ezagutu duen euskal idazle, hizkuntzalari eta folklore-ikertzaile handienetako bat da.

Bibliografia / Web baliabideak

- ∂ *Euskal Herriko kosta* (Wikipedia): https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herriko_kosta
- ∂ Olga Macías, José María Unsain, Soco Romano, Ana Iza, *Emakumeak eta itsasoa = Las mujeres y el mar* / Olga Macías ...[et al.] . San Sebastián: Untzi Museoa-Museo Naval, 2016, 59 orr. <https://itsasmuseoa.eus/wp-content/uploads/2021/07/emakumea-eta-itsasoa.pdf>
- ∂ Lekeitioko kultur eta natur ondareak: <https://www.lekeitondare.eus/>
- ∂ Herri Ondarea: <http://herriondarea.eus/>
- ∂ Esther Elgoibar eta Iñaki Gaminde, *Lekeitioko narrazioak*, Euskalingua, 2003-2, Euskal Herriko Unibertsitatea Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila, 2003, 130-145 orr. <http://mendebalde.eus/euskalinguak/Euskalingua%202/Lekeitioko%20narrazioak.pdf>
- ∂ Xabier Alberdi Lonbide; Jesús Manuel Pérez Centeno, *Itsasoari so: Euskal Herriko talaia eta seinero-postuak = Los ojos del mar: atalayas y señeros del País Vasco*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2010, 64 orr.
- ∂ Alex Turrillas; J. Ignacio Treku, *Hiru olatuak = Las tres olas*, Debako Udala, 2019.
- ∂ D. Juan V. Araquistain, *Tradiciones vasco-cántabras*, Tolosa, 1866, 381 orr. <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/applet/libros/JPG//012450/012450.pdf>
- ∂ Amarauna: <https://www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/traganarru/6c16658f-ddc5-46de-b788-6e1893bbbee1>
- ∂ Maialen Heguy Lucu, *Hiru uhinak ipuinaren bariazioen azterketa (1866-2004)* memoriaren aurkezpena, Baionako Unibertsitatean masterra, Euskonews, 564, 2011: <https://www.euskonews.eus/0564zbbk/gaia56403eu.html>
- ∂ Bizkaiko hitza, 2019/03/01a: https://www.berria.eus/pdf_artxiboa/2019/2019-03-01_BIZKAIA_HITZA_ca378565dc1abbc6.pdf
- ∂ Resurrección María Azkueren lan argitaratuak, Euskaltzaindia: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/azkue/AurkibideOrokorra.pdf

